

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****KULTURA, TURISMO, GAZTERIA  
ETA KIROL DEPARTAMENTUA**

*12/2019 Foru Dekretua, apirilaren 16koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea sortzeari buruzkoa.*

Botere publikoek haur, nerabe eta gazteei dagokienez duten ardura berezia ez da haiek babestera mugatzen; haur eta gazteen sustapena bultzatzea ere badute xede. Haur, nerabe eta gazteen inguruko berariazko politika publikoetan, babesa eta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira; izan ere, pertsonen bizitzako aldi horien berezko zaurgarritasunaz arduratzea bezain funtsezkoa da gizakien bizitzan oinarritzekoak diren etapa horietan haien garapen osoa bultzatzea. Haur eta gazteen sustapenerako politikek, haien babeserako politikekin batera, haur, nerabe eta gazteentzako berariazko jardueren esparru bat osatzen dute eta, aldi berean, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko ardura areago nabarmentzen dute eta eraginkorrago egiten, hala politika publiko guztietan nola gizarte bizitzan.

Nazio Batuen Erakundeak 1989an onartutako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak -18 urtez azpiko pertsoneri aplikagarria, oro har- jada hizpidera ekartzen du «haurren eskubidea atsedean hartzeko eta aisiarako, jolasteko eta haren adinari dagozkion jolas jardueretan aritzeko eta kultur bizitzan eta arteetan askatasunez parte hartzeko» (31. artikulua). Orobat jasotzen ditu «elkartzeko eta bilera baketsuak egiteko eskubidea» (15. artikulua), «iritzia askatasun osoz emateko eskubidea, haurrari dagozkion gai guztietan» (12. artikulua), eta, jakina, «gizarte libre batean haurra bizi arduratsua baterako prestatzea» ahalbidetuko duen hezkuntzarako eskubidea (29. artikulua). Hitzarmen bat denez, estatu sinatzaileetako botere publikoak haren betearazpena bermatzera behartuta daude.

Europar Batasunaren Oinarritzeko Eskubideen Gutunak 24. artikuluan xedatzen duenez, «haurrek babes eskubidea eta ongizaterako beharrezko dituzten zainketak jasotzeko eskubidea dute. Askatasunez adierazi ahal izango dute beren iritzia. Beren iritzia kontuan hartuko da dagozkien gaietan, beren adinaren eta heldutasunaren arabera». Tratatu indarrean jartzean, Oinarritzeko Eskubideen Gutunak itunen balio juridiko bera du (Europar Batasunaren Tratatu 6. artikulua).

Gazteriarren arloko politikei dagokienez, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 166. artikulua arreikusten du «gazteen eta gizarte-hezkuntzetako eragileentzako trukaketak gehitzeko moduak erraztea, eta gazteak Europako bizitza demokratikoan parte hartzea bultzatzea». Europar Batasunak 2001eko azaroan onartutako Gazteriarren Liburu Zuriak, 4.1.2 atalean zehazten duenean zein diren lankidetzako metodo irekia erabiltzeko lehentasuneko gaiak, haur eta gazteen sustapenaren arloan bete-betean sartzen diren lau gai aipatzen ditu: partaidetza, informazioa, boluntariotza jarduerak eta gazteak hobetu ulertu eta ezagutzea. Europar Batasunaren gazteriarako 2010-2018 estrategiak aukera gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna du jomuga -Gazte Bermea progra-

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA****DEPARTAMENTO DE CULTURA, TURISMO,  
JUVENTUD Y DEPORTES**

*Decreto Foral 12/2019, de 16 de abril, por el que se crea la Red Interinstitucional de Promoción de la Infancia y la Juventud del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

La especial responsabilidad que los poderes públicos tienen en relación con las niñas, niños, adolescentes y jóvenes no se refiere únicamente a su protección, sino que alcanza también a la promoción infantil y juvenil. En las políticas públicas específicas relativas a la infancia, la adolescencia y la juventud, la protección y la promoción son dos dimensiones complementarias e ineludibles, pues, si bien es fundamental ocuparse de la vulnerabilidad inherente a estos períodos de la vida de las personas, no lo es menos impulsar su pleno desarrollo en estas etapas fundamentales de la vida humana. Las políticas de promoción infantil y juvenil, complementándose con las de protección infantil y juvenil, generan un ámbito de actividades específicas para la infancia, adolescencia y juventud, a la vez que contribuyen a hacer más presente y eficaz la preocupación por los derechos de las niñas, niños, adolescentes y jóvenes en el conjunto de las políticas públicas y la vida social.

Ya la Convención sobre los Derechos del Niño -aplicable en general a las personas menores de 18 años-, aprobada por las Naciones Unidas en 1989, se refiere al «derecho del niño al descanso y el esparcimiento, al juego y a las actividades recreativas propias de su edad y a participar libremente en la vida cultural y en las artes» (artículo 31). De igual modo recoge el derecho «a la libertad de asociación y a la libertad de celebrar reuniones pacíficas» (artículo 15), «el derecho de expresar su opinión libremente en todos los asuntos que afectan al niño» (artículo 12) y, obviamente, el derecho a la educación que permita «preparar al niño para una vida responsable en una sociedad libre» (artículo 29). Al tratarse de una Convención, los poderes públicos de los Estados firmantes están obligados a garantizar su cumplimiento.

La Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea (artículo 24) señala que «los menores tienen derecho a la protección y a los cuidados necesarios para su bienestar. Podrán expresar su opinión libremente. Ésta será tenida en cuenta en relación con los asuntos que les afecten, en función de su edad y de su madurez». Con la entrada en vigor del Tratado, la Carta de Derechos Fundamentales adquiere el mismo valor jurídico que los Tratados (artículo 6 del Tratado de la Unión Europea).

En lo relativo a las políticas de juventud, el artículo 166 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea prevé «favorecer los intercambios de jóvenes y de animadores socioeducativos, y fomentar la participación de los jóvenes en la vida democrática de Europa». El Libro Blanco sobre la juventud, aprobado por la Unión Europea en noviembre de 2001, cuando identifica en su apartado 4.1.2. los temas prioritarios para la utilización del método abierto de coordinación, se refiere a cuatro que entran de lleno en el ámbito de la promoción infantil y juvenil: la participación, la información, las actividades de voluntariado y una mejor comprensión y conocimiento de la juventud. La estrategia de la Unión Europea para la juventud 2010-2018 busca la igualdad de oportunidades -apoyándose, por ejemplo, en los programas de

mak oinarri hartuta, adibidez-, eta pertsona gazteen herritartasun aktiboa, gizarte integrazioa eta elkartasuna -Erasmus+ programaren boluntarioratza jardueren bitartez, esaterako-.

Espainiako konstituzio esparruaren barruan, Autonomia Estatutuak 10. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eksklusibo gisa aipatzen ditu haur eta gazte politikaren arloan eta aisia eta denbora librearena. Esparru horretan, 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, haur, nerabe eta gazteen oinarritzko eskubideen artean jasotzen ditu «parte hartzeko, elkartzeko eta batzartzeko eskubidea» (14. artikulua), «adierazpen askatasunerako eskubidea» (15. artikulua), «esateko dutena entzun dakien eskubidea» (16. artikulua) eta «nork bere eskubideak defendatzeko eskubidea» (17. artikulua).

Bestalde, «aisialdi aktiborako eskubidea» ere aipatzen du (V. kapitulua), haur eta nerabeen jolas jarduerak «haien garapenerako funtsezkotzat» joz (34.1. artikulua). Lege horrek berak, gizarterako eskubideari buruzko VIII. kapituluan, administrazio publikoak premiatzen ditu, besteak beste, «haurrei eta nerabeei informazioa emateko zerbitzuak» (42. artikulua) eta «helduarora igarotzeko programak» (44. artikulua) sor ditzaten. Bestalde, lege horren 26. artikuluan adierazten denez, «haurrek eta nerabeek eskubidea dute, eskolan ematen zaien irakaskuntzaren osagarri gisa, kultura-prestakuntza integrala jasotzeko, beren gaitasun intelektual eta artistikoa garatzeko nahiz trebetasun fisikoak eta eskulanetarakoak areagotzeko».

Euskal Autonomia Erkidegoak gazteriar buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere, ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jarduera arauemaile eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jasoa. Arautze eta partaidetza jarduera hori lagungarria izan da foru dekretu honen jarduketara esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Gazteriarren Kontseiluari buruzko 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak foru dekretu hau onartzen du haur eta gazteen arloko eta aisia eta denbora librearen arloko politikak gauzatzeko duen eskumena baliatuz, hala baitagokio, nahiz eta Euskadiko erakunde erkideek zuzenean jardun ahal izan, 27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzkoak, 7.c.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hori egitean, bertako foru aldundirako arautzen du udalekiko koordinazio eta laguntza funtzioa (7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak -Toki Administrazioaren Arrazionalizazioaren eta Iraunkortasunaren 27/2013 Legeak aldatua-, 36. artikuluan jasoa), 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik. Laburbilduz, azken finen aurrera jarraitzen du haur eta gazteen sustapenaren arloan eskumenak eta ardurak gauzatzen.

Hain zuzen ere, azken hogeita hamabost urteetan Gipuzkoako gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide luze eta baliotsua egin dute haur eta gazteen sustapenean. Ibilbide horrek ardura publikoa eta lankidetzazko partaidetza baliatzeko eredu bat ekarri du, hiru etapak -haurtzarora, nerabezarora eta gazteria- continuum gisa hartzen dituenak. Haur eta gazteen sustapenerako politika sektoreen arteko koordinazioa bultzatu eta zeharkako eragina izan nahi duen arlo gisa eratu da -haur, nerabe eta gazteekin zuzenean esku hartzeko zerbitzu propioak dituenak-, haur eta gazteen partaidetza sustatuz politika sektorial guztietan eta gizarte bizitzan haur, nerabe eta gazteekin adeitsua edo haien aldekoa izango den ikuspegi bat sortzeko.

garantía juvenil- y la ciudadanía activa, integración social y solidaridad de las personas jóvenes -mediante, por ejemplo, las actividades de voluntariado del programa Erasmus+-.

Dentro del bloque de constitucionalidad español, el Estatuto de Autonomía en su artículo 10 señala como competencias exclusivas de la Comunidad Autónoma del País Vasco la política infantil y juvenil, así como las materias de ocio y esparcimiento. En ese marco, la Ley 3/2005, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, recoge, entre los derechos básicos de las niñas, niños, adolescentes y jóvenes, el «derecho de participación, asociación y reunión» (artículo 14), el «derecho a la libertad de expresión» (artículo 15), el «derecho a ser oído» (artículo 16) y el «derecho a la defensa de sus derechos» (artículo 17).

Por otra parte, se refiere, también, al «derecho al tiempo libre activo» (capítulo V), considerando las actividades lúdicas y de ocio de las niñas, niños y adolescentes como «elementos esenciales de su proceso de desarrollo» (artículo 34.1.). Esta misma ley, en su capítulo VIII, dedicado al derecho a la integración social, insta a las Administraciones públicas a crear, entre otros, «servicios de información a la infancia y la adolescencia» (artículo 42) y «programas de transición a la vida adulta» (artículo 44). Por otra parte, el artículo 26 de esta ley señala que «todos los niños, niñas y adolescentes tienen derecho a recibir, como complemento de la enseñanza impartida en los centros escolares, una formación cultural integral, que les permita desarrollar su capacidad intelectual y artística y sus habilidades manuales y físicas».

Si bien la Comunidad Autónoma del País Vasco no dispone de una ley general o global sobre juventud, no puede desconocerse la actividad normativa y planificadora en la materia, recogida, por ejemplo, en los sucesivos planes jóvenes. Actividad de regulación y participación que ha contribuido al desarrollo, configuración y reconocimiento del ámbito de actuación al que se refiere este decreto foral y entre cuyos frutos cabe destacar aquí la Ley 6/1986, del Consejo de la Juventud de Euskadi y la Orden de 10 de diciembre de 1999, de la Consejera de Cultura, referente al Observatorio Vasco de la Juventud.

La Diputación Foral de Gipuzkoa aprueba este decreto foral en el marco del ejercicio de la competencia de ejecución de la política de la infancia y la juventud, así como la referida a ocio y esparcimiento, que, sin perjuicio de la acción directa por parte de las Instituciones Comunes del País Vasco, le corresponde en virtud del artículo 7.c.2. de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos. Al hacerlo, atribuye a la Diputación Foral la función de coordinación y asistencia para con los ayuntamientos (prevista en el artículo 36 de la Ley 7/1985, reguladora de las bases del Régimen Local, modificado por la Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local) de forma coherente con la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. En definitiva y en última instancia, por tanto, sigue avanzando en el ejercicio de sus competencias y responsabilidades en materia de promoción infantil y juvenil.

De hecho, la sociedad civil y las instituciones públicas de Gipuzkoa cuentan, especialmente en los últimos treinta y cinco años, con una prolongada y valiosa trayectoria en el ámbito de la promoción infantil y juvenil. Esta trayectoria ha llevado a un modelo de ejercicio de la responsabilidad pública y la participación colaborativa en el que se apuesta por la consideración de las tres etapas -infancia, adolescencia y juventud- como un continuo. Se configura la política de promoción infantil y juvenil como un ámbito sectorial -con servicios propios de intervención directa con niñas, niños, adolescentes y jóvenes- que tiene vocación de coordinación intersectorial e influencia transversal, para la incorporación -mediante la promoción de la participación infantil y juvenil- de una perspectiva amigable o favorecedora para con las niñas, niños, adolescentes y jóvenes en el conjunto de políticas sectoriales y de la vida social.

Gertuko –udalen ardurapeko– zerbitzu eta jardueren aldeko apustua egiten jarraitu dugu, bai eta koordinazio eta laguntza lanetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzioa egituratzen eta indartzen ere, udalaz gaindi eta lurralde mailan. Apustu horri esker, udal autonomiatik egindako zerbitzu eta jardueren sare hori sendotu eta hobetu da, eta, ondorio gisa, 2009an Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea Infancia y la Juventud del Territorio Histórico de Gipuzkoa, Gaztematika deitua, sortu zen. Sare horrek, hainbat urtez martxan egon eta hobetuz eta prozesu eta aktibo baliotsuak sortuz jardun ondoren –udalen eta foru aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmenak oinarri harturik–, Gipuzkoako biztanleria eta lurralde ia osoa hartzen du, eta ehun zerbitzu egonkor baino gehiago ditu martxan.

Ibilbide hori eginda, gaur egun ezinbestekoa da sare hori juridikoki berrestea, mantentzea eta are sakontzea, jardunbide egokiak trukatzeko eta arlo horretan zailtasun edo gabezia gehien dituzten udalei laguntza instituzionala emateko ez ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikokoan partaidetza eraginkorra sendotzeko topagune eta proposamenen iturri izan dadin, jardunbide egokiak partekatu ahal izateko sare eta esparruak eraikiz, sinergiak bilatuz eta gazteen sustapenerako prozesuak berrelikatuz, modu horretan sorkuntza partekatuaren eta lankidetzazko gobernantzaren alde eginez. Foru dekretu honek, beraz, aitorten juridikoa ematen dio adierazitako Sareari, eta, horrekin batera, baita merezi duen bultzada ere.

Lehendik erakundeen artean abian zeuden jardunbide egokiak eta funtzionamenduari babes juridikoa emateaz gain, foru dekretu honek garrantzia berezia eman nahi dio Haurren eta Gazteen Gipuzkoako Topaketa Mahaiari, hots, gizartearen eta administrazioen arteko topaketa organoari, zeina erreferentzia foro bihurtu nahi baita, aztertzeiko ikuspegi publiko eta pribatuetatik Gipuzkoako haurren eta gazteen zailtasunak, aukerak eta erronkak, hau da, gure herritarren etorkizuna.

Foru dekretuaren edukiarri dagokionez, lehenik eta behin Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearen sorreraz dihardu, eta ondoren Sarearen eta haren organoak eratzearen helburuak zehazten ditu.

Izan ere, xede nagusia da arlo honen inguruan sarean jardungo duen eredu bat edo esperientziak eta kezkek trukatzeko topagune bat bultzatzea, eta, testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia da, erakunde gisa, lankidetzaz sustatzen duena, baliabideak eta zenbaitetan bitartekoak jartzen dituen eta, bereziki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrien elkargune izango dena, gazteen sustapenerako metodologiak, tresnak eta teknikak lantzeko xedeaz.

Jarduera horien artean, lehenik eta behin orokorrak diren eta bi gobernu mailetan (forukoa eta tokikoa) aplikagarriak diren zenbait aipatzen dira, eta horietan biltzen dira funtsezko ideiak edo jarduera arlo komunak, zeinetan elkarlanak zeregin garrantzitsua izan dezakeen. Araubide honetan atal bereziki garrantzitsua da jardueren eta, hala dagokionean, Sareak Gipuzkoako udalerriei –batez ere baliabide gutxiago dituztenei eta gazte edo haurren sustapenerako politika bat gauzatzeko egiazko aukerarik ez dutenei– eskainiko dizkien prestazioei buruzkoa. Horrenbestez, Sarea bitarteko bat izan daiteke gazte edo haurren sustapenerako udalerriekin lankidetzan jarduteko eta haiei laguntza teknikoak emateko.

Azkenik, gero eta beharrezko eta premia-koagoa da politika publikoetan haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroari buruzko berriazko ardura txertatzea eta haur eta gazteen ikuspegia barnean hartzea. Izan ere, ebaluazioak alderatuz detektatu da ongizate estatuan ez zaiola behar besteko arreta jartzen belaualdi horietan egiten beharreko inbertsio sozialari, eta joera hori, haien-tzat baztertzailea izateaz gain, oso okerra eta arriskutsua da gizartearen iraunkortasun eta garapenerako. Bestalde, hori bereziki garrantzitsua da aldi historiko honetan, gure gizarte mer-

Se ha ido compartiendo la apuesta por los servicios y actividades de proximidad –de responsabilidad municipal– y por la estructuración y fortalecimiento de la función de la Diputación Foral de Gipuzkoa en labores de coordinación y asistencia, a escala supramunicipal y territorial. Esta apuesta ha conducido al impulso y mejora de dicha red de servicios y actividades realizadas desde la autonomía municipal y llevó a la creación en 2009 de la Red Interinstitucional de Promoción de la Infancia y la Juventud del Territorio Histórico de Gipuzkoa, denominada Gaztematika. Esta Red, tras varios años de funcionamiento y perfeccionamiento y de generación de procesos y activos valiosos –apoyado en convenios de colaboración entre los ayuntamientos y la Diputación Foral–, cubre en este momento la práctica totalidad de la población y el territorio de Gipuzkoa, con más de cien servicios estables en funcionamiento.

Después de esta trayectoria, el referendo jurídico, el mantenimiento y la profundización de esta red se hace hoy indispensable, no sólo como ámbito de intercambio de buenas prácticas y de apoyo institucional a los municipios con más dificultades o carencias en esta materia, sino también como lugar de encuentro y propuesta para reforzar la participación efectiva en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, construyendo redes o espacios donde se puedan compartir buenas prácticas, buscando sinergias y retroalimentando los procesos de promoción juvenil, apostando así por la cocreación y la Gobernanza colaborativa. El presente decreto foral viene, por tanto, a dotar a dicha Red del reconocimiento jurídico y, con él, del nuevo impulso que merece.

Además de darle carta de naturaleza jurídica a las buenas prácticas y al funcionamiento que existían de facto a nivel institucional, este decreto foral quiere dotar de una especial relevancia y protagonismo a la Mesa de la infancia y juventud de Gipuzkoa, un órgano de encuentro entre la sociedad civil y las administraciones guipuzcoanas que está llamado a convertirse en un foro de referencia para abordar desde las diversas perspectivas público-privadas las dificultades, oportunidades y retos de la infancia y juventud de Gipuzkoa, es decir, del futuro de nuestra ciudadanía.

En lo que respecta a su contenido, este decreto foral se centra, en primer lugar, en la creación de la Red Interinstitucional de Promoción de la Infancia y la Juventud del Territorio Histórico de Gipuzkoa y, a continuación, procede a definir cuáles son las finalidades de la configuración de esa Red y de cada uno de sus órganos.

Se trata, en efecto, de impulsar un modelo de funcionamiento en red o lugar de encuentro de intercambio de experiencias e inquietudes sobre ese ámbito, en el cual la Diputación Foral de Gipuzkoa es la institución que impulsa la cooperación, aporta recursos y en algunos casos medios y, en especial, sirve de punto de encuentro para los municipios del Territorio Histórico en lo que a metodologías, instrumentos y técnicas de promoción juvenil respecta.

Dentro de esas actividades se enuncian, en primer lugar, unas de carácter general y que son aplicables a ambos niveles de gobierno (foral y local), donde se recogen ideas sustantivas o campos de actuación común en el que la colaboración puede ser importante. Particular importancia tiene en esta regulación el apartado relativo a actividades y, en su caso, prestaciones que la Red ofrecerá a los municipios guipuzcoanos, especialmente a aquellos que tienen menos recursos y no tienen posibilidades efectivas de materializar una política de promoción juvenil y/o infantil. La Red podrá ser por tanto, vehículo para la cooperación y asistencia técnica a los municipios en materia de promoción juvenil y/o infantil.

Por último, la incorporación de la preocupación específica por la infancia, la adolescencia y la juventud y la adopción de la perspectiva infantil y juvenil en las políticas públicas se hace cada vez más necesaria y urgente, al detectarse desde la evaluación comparada la tendencia a un Estado de bienestar insuficientemente orientado a la inversión social en esos grupos generacionales, fenómeno que, además de discriminatorio para sus miembros, es profundamente equivocado y peligroso para la sostenibilidad y el desarrollo social. Ello es especialmente re-

kantilizatu eta kontsumistetan krisi ekonomiko, instituzional, politiko eta etikoak areagotu egin baitu pertsonak hezten ari diren urteetan autonomia pertsonala, elkarbizitza komunitarioa, balio zibikoak eta herritarren partaidetza, berdintasunezko balio, jarrera eta jokabideak eta indarkeria matxistaren prebentzioa modu atseginean sustatzeko gune eta prozesuen beharra. Esperientzia historikoagatik eta ebidentzien alderaketagatik badakigu haur eta gazteen sustapenerako jardunbide eta eremuetan lantzen eta elikatzen dela, hein handi batean, herritartasun oso, arduratsu, etiko eta parte-hartzailea.

Hori guztia dela eta, foru dekretu hau onartzea funtsezko tresna da Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat haur, nerabe eta gazteei begira lurralde konprometitu eta adeitsua izan dadin.

Horiek horrela, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak, Diputatuen Kontseiluak gaia eztabaiatu eta onartu ondoren, gaurko bileran

#### XEDATZEN DUT

**1. artikulua.** *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearen sorrera eta xedea.*

1. Haur eta Gazteen Sustapenerako politikaren esparruan, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko lankidetzaren Sarea sortzen da, «Gaztematika» izenarekin. Sare hori foru dekretu honetan ezarritakoak eta Foro Teknikoak edota Foro Politikoak, Batzorde Tekniko Iraunkorrak proposatuta, onartzen dituen antolaketa arauak gobernatzeko dute.

2. Sarearen xede bakarra izango da haur eta gazteen sustapenerako politikak bultzatu eta indartzea, eta, bestalde, arlo horretan esperientziak eta jardunbide egokiak trukatu eta elkarrengandik ikastea, eta foru aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokiko erakundearen arteko lankidetzaren eta elkarlana sendotzea.

**2. artikulua.** *Sarearen helburuak.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareak helburu hauek izango ditu:

a) Erakundeak elkartzeko sare edo gune bat antolatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen artean –berezik foru gobernuaren eta tokiko gobernuen artean–, haur eta gazteen sustapenerako politikak bultzatzeko eta horrela biztanleriako sektore horien eta erakundearen arteko harremanak sendotzeko.

b) Haur eta gazteen sustapenaren arloan diharduten erakundearen esperientziak eta jardunbide egokiak, trukatzeko gune bat ezartzea, elkarrengandik ikasteko erakundearteko komunitate bat eratuz eta arlo horretan erakundearen hobekuntza sustatuz.

c) Sarean dauden erakundeek laguntza eta lankidetzaren tekniko bitartekoak jartzeko arauzko betebeharrak egoki, gauzatu eta bete ahal izateko, araudi eta ordenantzak onartzeko eta haur eta gazteen sustapenerako metodologiak, planak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.

d) Haur eta gazteen sustapenaren arloan politika egokiak zehazten laguntzea berdintasunezko ikuspegi batetik, gero Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalek gara ditzaten.

e) Haur eta gazteen sustapenaren arloan kargudun publikoaren gaitasun instituzionalak eta foru aldundiko nahiz tokiko erakundeetako langile eta teknikarien gaitasun profesionalak hobetzeko prestakuntza programak, foroak eta jardunaldiak sustatzea.

levanten, por otro lado, en una etapa histórica en la que la crisis económica, institucional, política y ética en nuestras sociedades mercantilizadas y consumistas acrecienta la necesidad de espacios y procesos de promoción gratificante de la autonomía personal, la convivencia comunitaria, los valores cívicos, la participación ciudadana, los valores, actitudes y comportamientos igualitarios y la prevención de la violencia machista en los años de formación de las personas. Sabemos por la experiencia histórica y por la evidencia comparada hasta qué punto la ciudadanía plena, responsable, ética y participativa se cultiva y se forma en las prácticas y espacios de la promoción infantil y juvenil.

Por todo ello, la Diputación Foral de Gipuzkoa entiende la aprobación de este decreto foral como una herramienta fundamental para configurarse como territorio comprometido y amigable con las niñas, niños, adolescentes y jóvenes.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral, en sesión del día de la fecha

#### DISPONGO

**Artículo 1.** *Creación y objeto de la Red Interinstitucional de Promoción de la Infancia y la Juventud del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

1. En el marco de la política de promoción de la infancia y la juventud, se crea la Red Interinstitucional de colaboración para la promoción de la Infancia y la Juventud de Gipuzkoa, bajo el nombre «Gaztematika». Esta red se regirá por lo dispuesto en el presente decreto foral y por las normas de organización que sean aprobadas por el Foro Técnico y/o el Foro Político a propuesta de la Comisión Técnica Permanente.

2. La Red tendrá como objeto exclusivo el fomento e impulso de las políticas de promoción de la infancia y la juventud, así como el intercambio de experiencias y buenas prácticas, el aprendizaje recíproco en esta materia y la colaboración y trabajo conjunto entre la Diputación Foral y las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**Artículo 2.** *Finalidad de la Red.*

La Red Interinstitucional de Promoción de la Infancia y la Juventud del Territorio Histórico de Gipuzkoa tendrá los siguientes fines:

a) Articular una red o espacio de encuentro interinstitucional desde la perspectiva de los gobiernos multinivel del Territorio Histórico, especialmente del gobierno foral y de los gobiernos locales, que tenga por objeto impulsar las políticas de promoción de la infancia y la juventud y fortalecer así las relaciones entre estos sectores de población y sus instituciones.

b) Establecer un espacio de intercambio de experiencias y buenas prácticas, de las distintas instituciones que están presentes en el ámbito de la promoción de la infancia y la juventud, promoviendo una comunidad institucional de aprendizaje recíproco y de la mejora institucional en ese ámbito.

c) Vehicular canales de asistencia y cooperación técnica para el correcto ejercicio y cumplimiento de las obligaciones normativas, la aprobación de reglamentos, ordenanzas, así como la puesta en marcha de metodologías, planes, procesos e instrumentos que favorezcan la promoción de la infancia y la juventud por parte de las instituciones presentes en la Red.

d) Servir de cauce para ayudar en la determinación de las políticas más adecuadas a desarrollar por la Diputación Foral de Gipuzkoa y los ayuntamientos en el ámbito de la promoción de la infancia y la juventud.

e) Promover programas formativos, foros y jornadas especializadas que refuercen las competencias institucionales de los cargos públicos representativos y las competencias profesionales del personal técnico foral y local en materia de promoción de la infancia y la juventud.

Helburu horien guztien zeharkako elementuak izango dira: hizkuntza berdintasuna, hizkuntza aniztasuna, euskararen erabilaren sustapena eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegia.

**3. artikulua. Sarearen esparruko jarduerak eta prestazioak.**

Foru aldundiak sustatutako erakundearteko sarea den aldetik, Sarean jarduera hauek egin ahal izango dira:

a) Elkarlanean aritzea haur eta gazteen sustapenaren arloan foru aldundiak bultzatu beharreko jarduera ildoak definitzeko, eta eremu horretan zer ekintza lehenetsi nahi diren zehaztea.

b) Gobernu maila desberdinek abian jarri ahal izango dituzten haur eta gazteen sustapenerako plan eta programa zehatzak bultzatzea.

c) Haur eta gazteen sustapena xede duten prestakuntza programak diseinatu eta sustatzea.

d) Sarearen parte diren erakunde, arduradun eta teknikariei zuzendutako haur eta gazteen sustapenaren arloko jardunaldi, topaketa, foro, mintegi edo lantegiak diseinatu, koordinatu eta gauzatzeko.

e) Haur eta gazteen sustapenaren arloko jardunbide egoiak eta eredu arrakastatsuek identifikatu eta partekatzea, eta horien ezarpena sustatzea Sarearen parte diren erakundeetan.

f) Haur eta gazteen sustapenerako gida metodologikoak sortu eta baliatzea.

g) Hartzaileek zuzeneko zerbitzuak jaso ditzaten bultzatzea.

h) Beste Sare, arlo edo politika batzuekin harremanak izatea eta koordinatzea, haur, nerabe eta gazteek beren eskubiak baliatu ditzaten bultzatzeko eta haien autonomi edota emantzipazio prozesuan laguntzeko. Arreta berezia jarriko zaio berdintasunean aurrerapausoak emateari; haur, nerabe eta gazteengan berdintasunezko balioak sustatzeari; emakumezkoen ahalduztzeari; eta nerabe eta gazteengan indarkeria matxistaren prebentzioari.

i) Hizkuntza berdintasuna, hizkuntza aniztasuna eta euskararen erabilera sustatzea.

**4. artikulua. Sarearen egitura organikoa.**

1. Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea gobernatzen duten printzipioak dira koordinazioa, sareko lana eta ezagutza oinarri duen kalitatezko interbentzioa. Sarearen antolaketa araudiak, egitura berriak sortu, daudenak egokitu edo foru dekretu honetan jasotako ez bestelako foroak zabaldu ahal izango ditu, betiere foru dekretuan beharrezkotzat definitzen diren egiturak errespetatuz.

2. Erakundeen jarduna ahalik eta egokiena izan dadin, Sarea honela egituratuko da:

a) Beharrezkoak dira honako egitura hauek:

- 1) Foro Politikoa.
- 2) Batzorde Politikoa Iraunkorra.
- 3) Foro Teknikoa.
- 4) Batzorde Tekniko Iraunkorra.

b) Komenigarriak dira egitura hauek:

- 1) Haur eta Gazteen Gipuzkoako Topaketa Mahaia.
- 2) Haur, nerabe eta gazteen partaidetzarako foroak.

Serán elementos transversales a todos estos objetivos: el tratamiento de la igualdad y la diversidad lingüística, el fomento del uso del euskera así como la perspectiva de igualdad entre mujeres y hombres.

**Artículo 3. Actividades y prestaciones a desarrollar en el ámbito de la Red.**

En su carácter de red interinstitucional promovida por la Diputación Foral, la Red será un ámbito en el que se podrán desarrollar las siguientes actividades:

a) Desarrollar un trabajo compartido para la definición de las líneas de actuación en materia de promoción de la infancia y la juventud a impulsar por la Diputación Foral a favor de las entidades locales, y asimismo identificar qué tipo de acciones se quieren priorizar en ese campo.

b) Impulsar planes y programas concretos de promoción de la infancia y la juventud que puedan ser puestos en marcha por los diferentes niveles de gobierno.

c) Diseñar y promover la ejecución de programas formativos que tengan la finalidad de hacer efectiva la promoción de la infancia y la juventud.

d) Diseñar, coordinar y ejecutar jornadas, encuentros, foros, seminarios o talleres en materia de promoción de la infancia y la juventud dirigidos a las instituciones, responsables y personal técnico que forman parte de esta red.

e) Identificar y compartir buenas prácticas, modelos de éxito en materia de promoción de la infancia y la juventud y promover su aplicación entre las instituciones que forman parte de la Red.

f) Crear y poner en práctica guías metodológicas de promoción de la infancia y la juventud.

g) Promocionar servicios directos a sus destinatarias y destinatarios.

h) Interactuar y coordinarse con otras redes, ámbitos o políticas para impulsar el ejercicio de derechos y el acompañamiento en el proceso hacia la adquisición de su autonomía o emancipación de niños y niñas, adolescentes y jóvenes. Se incidirá especialmente para avanzar en la igualdad de mujeres y hombres, en el fomento de valores igualitarios, en su empoderamiento y en la prevención de la violencia machista en la adolescencia y la juventud.

i) Impulsar y fomentar la igualdad y la diversidad lingüísticas y el fomento del euskera.

**Artículo 4. Estructura orgánica de la Red.**

1. La Red Interinstitucional de Promoción de la Infancia y la Juventud de Gipuzkoa se rige por los principios de coordinación, trabajo en red e intervención de calidad basada en el conocimiento. Las normas organizativas de la Red podrán crear estructuras nuevas, adaptar las existentes o abrir foros de distinto carácter a los previstos en el presente decreto foral, respetando únicamente las estructuras necesarias que se definen en el mismo.

2. Con la finalidad de desarrollar un óptimo funcionamiento institucional, la Red se estructura del siguiente modo:

a) Son estructuras necesarias las siguientes:

- 1) El Foro Político.
- 2) La Comisión Política Permanente.
- 3) El Foro Técnico.
- 4) La Comisión Técnica Permanente.

b) Son estructuras convenientes:

- 1) La Mesa de la Infancia y la Juventud de Gipuzkoa.
- 2) El foro para la participación de las niñas, niños, adolescentes y jóvenes.

**5. artikulua. Foro Politikoa.**

1. Foro Politikoa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearen gobernu organo politikoa da. Foro horretan biltzen dira Gipuzkoan Sarean dauden erakundeetan haur eta gazteen sustapenaren arloan erantzukizun politikoa duten pertsona guztiak.

2. Honako kide hauek izango ditu:

a) Foru Aldundian haur eta gazteen sustapenaren arloan eskumena duen departamentuko titularra edo hark eskuordetutako titularra. Pertsona horrek Foro Politikoa koordinatuko du eta foroko lehendakaritzari dagozkion eginkizunak beteko ditu.

b) Foru aldundian haur eta gazteen sustapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularra.

b) Ordezkarri bana Sareari atxikitako Gipuzkoako udal bakoitzeko.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionario bat, idazkaritza lanak egingo dituen.

3. Foro Politikoa egingo diren jarduerak Sarearen ildo estrategikoak bultzatzea, garatzea, antolatzea eta zehaztea izango dute xede, eta bereziki honako hauek izango dira:

a) Foru aldundiak haur eta gazteen sustapenaren arloan onartu nahi dituen eta berariaz udaletara eta gainerako tokiko entitateetara bideratuko diren diru-laguntza lerro nagusiak eza-gutzea eta horien berri jasotzea.

b) Zehaztutako aldian eta berdintasun ikuspegi bat kontuan hartuta Gaztematikak bultzatu beharko dituen jarduera eta prestazioen ildo nagusiak zehaztea.

c) Batzorde Politiko Iraunkorrak arlo honetan bultzatzen dituen jarduera eta prestazio guztiei edo Foro Teknikoaren akordio edo proposamenei buruzko informazio zehatza jasotzea.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiari proposatzea Gaztematikari zer aurrekontu esleitu behar zaion.

e) Sarearen antolaketa eta funtzionamenduko barne araudia onartzea.

f) Udalerrriak ordezkatuz Batzorde Politiko Iraunkorreko kide izango diren lau titularrak izendatzea. Bozketan horretan udaletako ordezkariek soilik esku hartuko dute, eta ez foru aldundikoek.

